



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Hirigintza/Zerbitzuak sailean brigada eta herri lanen arduradun lanpostua lehiaketa bereizi bidez betetzeko behin betiko merezimenduen balioespena

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean otsailaren 13ko dataz argitaratu zen Oñatiko udaleko Hirigintza/Zerbitzuak sailean brigada eta herri lanen arduradun lanpostua lehiaketa bereizi bidez betetzeko deialdia eta oinarriak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2023 urteko 29. aldizkaria).

Aipatutako prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea martxoaren 6an amaitu zen. Honen bitartez, Oñatiko udaleko lan finkodun langileentzat erreserbatutako C1 taldeko brigada eta herri lanen arduradun lanpostua betetzeko lehiaketa orokorrera aurkeztutako behin betiko merituen balioespena argitaratzen da.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita

ERABAKI DUT

Lehena.- Merezimenduen behin betiko balioespena onartzea

MEREZIMENDUEN BEHIN BETIKO BALIOESPENA

		Antzinat.	Gradu finkatua	Titulu ofiziala	Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak	Egindako lana	GUZTIRA
1	BERISTAIN EIZAGUIRRE, ANDONI	5	3,25	1,5	0,6	6	16,35

Bigarrena.- Andoni Beristain Eizaguirre izendatzea Brigada eta Herri lanen arduradunaren (C1) lanpostuan. Jabetza-hartze data apirilaren 1a izango da.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari, Giza Baliabide eta Antolakuntza sailari eta Kontu-hartzailetzari jakinaraztea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2023ko martxoaren 22an

ALKATEAK



Izaro Etorza Arregi

